

purustua

A man with a beard and mustache, wearing a grey cap and a grey fishing vest over a dark shirt, is smiling and holding a large brown trout. He is standing outdoors in a natural setting with trees and foliage in the background. The fish is held horizontally in front of him, showing its characteristic brown and black spots. The overall scene is bright and sunny.

IBAIETAKO ARRANTZA
BUELTAN DA
UDABERRIKO ZALETASUNA



PUNTUA 191

2019-05-03 EGUBAKOITZA

Azaleko argazkia:
Ivan Diez.

Aurkibidea

- 4 **Bat-batean**
Eneko Llanos
- 6 **Irudiz** Euria baino ez da!
- 8 **Mundutik**
Kanada: Agur bat Kanadatik!
- 10 **Erreportajea**
Errekako arrantza, pasio bihurtuta
- 20 **Elkarrizketa**
Mercedes Hernaiz, notarioa
- 24 **Osasuna** Oreka arazoak
- 26 **Kirola**
Aitor Alberdi, prestatzaile fisikoa
- 28 **Adituen esanetan**
Erlojuaren irakurketa
- 30 **Otorduan**
Dukiena jatekoa: bertako barazkiak
- 32 **Moda** Errebekak
- 34 **Motorra** Airbagak
- 36 **Gure artistak** Xabi Yaniz oñatiarra
- 38 **Kultura** Irati Elorrieta idazlea
- 40 **Liburu artean** *Harry Potter*
- 42 **Gure altxorrak** Arrasate: Esteban Garibai Zamalloa, errefrau biltzailea
- 46 **Handitzen, handitzen**
Jolasa: *Plazan Bazan*
- 47 **Jaioberriak**

IRITZIA
- 3 **Nire txanda**
Jon Sagarzazu *Notre Dame sutan*
- 16 **Hainbat aburu**
Inazio Arregi
Opor ondoreneko ajeak
- 16 **Eztabaida**
Eutanasia, beste behin, erdigunean
- 17 **Xixili** Helena Azkarragaurizar
- 17 **Errematea**
Urtzi Amiano *Mina*
- 18 **Talaitik**
Iñaki Peña *Ahots guztiak*
- 44 **Komunikazioa**
Mikel Arregi *Hitzen esanahiaz*

puntu

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

TOKIKOM

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre

Zuzendari nagusia

Iban Arantzabal

Zuzendaria

Eneko Azkarate

Erredaktore burua

Monika Belastegi

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate

Publizitate arduraduna

Mireia Larrañaga

Kluba eta banaketa

Igone Osinaga

Maketazioa

Iñaki Iturbe, Aitor Lagoma

Publizitatea

Mireia Larrañaga,

Ziortza Martin,

Amaia Mundifiano

Administrazioa

Agurtzane Gaintzarain,

Ane Berezibar,

Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

132 posta-kutxa

Tel.: 943-25 05 05

Faxa: 943-25 05 00

berriak@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943-25 05 05

Faxa: 943-25 05 00

publi@goiena.eus

HARPIDETZA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943-25 05 05

harpidetza@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-1509-2014

ISSN: 2443-9738

Tirada: 4.100 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Notre Dame sutan



JON SAGARAZU

Elizek, sutan, argitzen dute. Halaxe dio han-hemen paretetan irakur daitekeen lelo iraultzaile zahar batek. Nostalgiko gutxi batzuek amesten dute oraindik tenpluei su emateko aukera ekarriko dien eguna. "36an bezala", diote, irribarrez. Baina 2019ko apirilaren 15eko ezbeharrak hauen amesgaizto zakarrenak ere kikildu zituen.

Parisen bihotzetik, beste behin ere, ke beltza altxatu zen zerurantz. Paristarren eta turisten bihotzak berriz geldi, izoztuta. Zur eta lur denak, Senaren ertzetan, begira. Hiri guztia, Frantzia. Albistegietan, ordenagailuetan, mugikorretan, mundu zabalaren begietan islatzen ziren Notre Dameko katedral famatua irentsi nahi zuten su gar izugarriak. Nolatan hondamendi hau? Nola posible?

Kale eta plazetan, han ziren denak, fededun eta sinesgabe, elkarren alboan. Ikusi arren, sinetsi ezinda. Ezin imajinatu, ezin onartu, Notre Dame zahar maitea galtzea! Halako ezbeharra! Sinesmen erlijiosorik ez zutenek segituan eskatu zuten desastre haren kausa edo zergatia, istripuaren arrazoi materiala edo errudun kriminala. Alferrik, noski. Fededunek, ordea, ezbeharrari probidentziaren perspektibatik begira, gogoeta sakondu zuten, "zergatik?" ez, baizik eta "zertarako?" galdetuz. Zer esan nahi ote Zeruak, munduko katedral famatuenaren sarraskia baimenduz? Nola interpretatu mezu hau? Katastrofe ezusteko, sinestezin hari esanahiren bat bilatu edo egotzi behar!

Notre Dameko suteak hausnarketa sakonak piztu ditu Europa zabalean. Gure ondare kultural eta historikoaren eta, batez ere, gure elizen zainketa nola egiten dugun. Mendebalde postmodernoan Eliza erakundearen krisia edo berpizkundea irudikatu. Europaren sinbolo bisitatuenetako bat erretzean, gure kontinente zaharra, noraez tristean, nortasun zaharberrituz bideratzeko grina piztu digu –hauteskundeak ate-joka!–. Monumentuak konpontzea gizarteko beste premia batzuen aurretik jarri behar den pentsarazi digu. Gure nortasuna, balioak, etorkizun-bidea birplanteatu dizkigu. Metafora sinpleago edo sakonagoak, anitzak, denak aberasgarriak.

Katedral honen suak argia egin du Europaren gogoetan. Denok hunkituz, barnenetik elkartu eta gogoberritu gaitu dramak. Hortik bilatu beharko genuke honen mezu edo zentzu ezkutua. Notre Dame oraindik bizi da. Katedrala, Europa bezala, berrituta altxatuko da. Eta puska baterako itzaliko zaizkie piromano fanatikoei elizak erretzeko grina txoroak. ■■■

**GURE NORTASUNA,
BALIOAK,
ETORKIZUN-BIDEA
BIRPLANTEATU DIZKIGU**

Eneko Llanos

TXOMIN MADINA

ARGAZKIA: BASQUE TEAM

Azaroan Arizonako ironmana irabazi eta apirilean Hegoafrikakoan laugarren geratu ostean, esan daiteke Basque Team-eko enbaxadorea den triatleta gasteiztarra sasoi betean dagoela berriz.

Azken hilabete emankorren ostean, une gozoaz gozaten? Bai; urte nahiko txarrak izaten ari nintzen, lehiaketetan gauzak ez zitzaizkidan ondo irteten ari, eta azken emaitza horiekin pozik nago; izandako errendimenduari gustura eta lortutakoaz gozaten.

Sabeleko arazoan ondorioz, azken urteak nahiko gogorrak izan dituzu. Pentsatu duzu inoiz kirola uztea? Modu serioan ez izan arren, dudan adinarekin burutik pasatu izan zait, bai. Baina,aldi berean, banekien fisikoki ondo nengoela eta kontua zen neuzkan arazoei konponbidea bilatzea. Banekien maila onean ibiltzeko moduan nengoela, eta azken probek hori erakutsi dute.

Momentu zailetan, zein edo zer izan duzu helduleku? Ikusten nuen entrenamendu oso onak egiten nituela eta gogoz nenbilela. Horri heldu natzaio, batez ere; goizago edo geroago emaitza onak lortuko nituela pentsatzeari. Une zailetan, emaztearengan, senideengan eta lagunengan ere bilatu dut babes, baina neure buruarengan izan dudan konfiantzak lagundu dit borrokatzen jarraitzeko gogoari eusten.

Urrian berriz ere itzuliko zara Hawaiiin egiten den ironmanera, munduko triatloi proba garrantzitsuenara. Gogoz? Bai. Hamabi urtez urtero sailkatu ostean, iaz ezin izan nuen han egoterik lortu. Orain, sasoi onean nagoela jakinda, ez naiz egotearekin konformatzen; lasterketa ona egin nahi dut.

Ironman proba batean, 3,86 kilometro egin behar dira igerian, 180 bizikletan eta 42,2 korrika. Merez du horrenbeste sufritzea?

Sufrimendua erlatiboa dela esango nuke. Nik erabaki dut egitea, gustukoa dut, eta, momentu txarretan sufritu arren, beste gauzak batzuk ere ematen dizkizu. Norberak erabakitako zerbait

egiteari ezin zaio sufrimendua deitu; niri, merezi izaten dit, gozatu egiten dudalako.

Bi Joko Olinpiarretan hartu duzu parte. Zer ikasi zenuen horietan? Ez nuke laburbiltzen jakingo. Sailkatzea bera gogorra izan zen, bizpahiru urteko prozesua, eta Jokoetan egotea oso esperientzia polita izan zen; batez ere, Sydneykoetan, orduan izan zen-eta triatloia lehenengoz kirol olinpiar. Ez dakit zerbait ikasi nuen, eta egia da ez nituela esperotako emaitzak lortu; baina asko gozatu nituen biak.

Zenbat aldiz esaten diozu zeure buruari jaten duzuna kontrolatzeko? Gutxitan. Ondo jatea gustatzen zait, eta saiatzen naiz ondo egiten didana jaten. Ez naiz oso zorrotza; kaloriak-eta ez ditut neurtzen. Baina bai saiatzen naiz, niretzako zerbait presatzen dudanean, ondo orekatuta egotea, nutriente guztiekin.

Triatloia osatzen duten hiru kirolez gain, eskupilota, judoa eta kirol-eskalada ere egin dituzu. Deigarria da denak bakarkakoak izatea. Eskupilotan binaka aritu nintzen, batez ere, baina egia da txikitatik, lehiatzeko orduan, ez nautela askorik erakarri taldekako kirolek. Beti izaten duzu inguruan laguntzen zaituen jendea, baina lehiatzeko kirol indibidualak aukeratu izan ditut. Asko gustatzen zait lagunekin eta familiarekin egotea; baina bakardadea ere gustuko dut, badakit eramaten eta bilatu ere egiten dut. Aukeratutako kirolak ondo datoz nire izaerarekin.

Munduan zehar ibili zara triatloiarri esker. Zein izan da kirola egin duzun lekuri politena? Leku eder askotan egon naiz, eta bakarra aukeratzea zaila da. Baina hainbeste bidaiatuta, askotan, etxetik gertu duzunarekin geratzen zara; asko gozaten dut etxeko bazterrekin. Munduan zehar ibilita, beste begi batzuekin ikusten dituzu, eta zorte handia dugu bizi garen lekuan bizita.

Soldata ederraren truke, bulego batean lan finko bat eskainiz gero, zein da zure erantzuna?

Lanaren arabera. Gustuko zerbaitetan bada, ez dit inporta geldi egoteak; hori bai, betiere, mugitzeko denbora badut lanetik irtendakoan. ■■■



Euria baino ez da!

ARGAZKIA: JULEN IRIONDO

TESTUA: JULEN IRIONDO

Sarri pentsatu izan dut euriari, izan, ez duen *arriskua* egozten diogula maiz –neuk ere bai–; babesteko ezer gabe harrapatzen zaituenean, erreakzioak ikusita: *Aizu, ez direla iltzeak zerutik behera datozenak, ura baino ez da.*

Aste Santu honetan ere tokatu zitzaidan hori pentsatzea. Santua joan zen eta Pazko astea etorri. Mendi buelta.

Orkatzategira. Zerua belzten Araba aldetik. Tontorrera iristear, lehen tantak. Burura: *Tontorreko ikuspegiaz segundo apur batzuetan gozatu eta korrika behera.* Korrika, antxintxika. Ortzadar bat agertu zen, bigarrenak ere nahi zuen; eta esan zidaten: *Antxintxika? Zergatik? Ura baino ez da.* Eta a ze oparia begien aurrean! Minutu batzuk joan ziren; begira, eta argazkiak egiten; bustitzen ari nintzenik ere ez nintzen ohartzen ari. ■



Agur bat Kanadatik!

KANADA



AINARA BORDES

ARGAZKIA: PIXABAY

Oraingo honetan, Errumania atzean utzi eta Torontora (Kanada) etorri naiz astebeterako. Nazioarteko harremanen inguruan mundu mailan existitzen den konferentzia handienetarikoa bat egin dute aurten hemen, eta ezin nuen kalerik egin.

Kanadara etortzen naizen bigarren aldia da, baina txundituta uzten nau etortzen naizen bakoitzean. Bidaia honetan, Toronto ezagutzeko aukera izan dut, baita Ontario hegoaldeko hainbat paraje ere. Ontario Kanadako probintzietako bat da, Quebec probintziaren mendebaldean dagoena. Ez dauka zuzeneko kostalderik Ozeano Atlantikoarekin, baina hegoaldean hiru aintzirarekin egiten du topo, eta iparraldean Hudson badia dauka, Ozeano Artikoaren parte dena. Toronto Ontario probintziako hiriburua da, eta lakuetatik gertu dago, hegoaldean.

Free tour bat egiteko aukera izan dut han eta gidak hainbat gauza interesgarri komentatu dizkigu Torontori buruz. Hala nola hiri hau hiru ezaugarrietatik dela ezaguna: banketxez beteta dagoelako, zinema industria itzela daukalako eta garagardoa ekoizten dutelako. Izan ere, hirigunea –*downtown*– etxe

orratzez josia dago, zein baino zein ikusgarriagoa eta Kanadako eta mundu mailako banketxeen bulegoz betea. Aldi berean, *downtown*-ek daukan tamaina eta ikusgarritasunagatik, zein beste auzo batzuen xarma dela eta, zinema industria ikaragarria dago hirian. New York, Chicago, Boston edo Baltimore bezalakoak simulatu nahi direnean, Toronto erabiltzen da askotan zinema munduan. Antza denez, bi arrazoi nagusi daude horretarako: alde batetik, Torontok dituen kaleketa eta etorbideak beste hiri horiekin nahastu daitezkeelako. Bestalde, etxe orratz sortak Manhattan irudi lezakeelako, edota, azkenik, adreiluzko St. Laurence merkatuak Bostongo hainbat eraikinen antza izan lezakeelako. Bestalde, noski, diru kontua dago jokoan. Izan ere, filmaketa lanetan kanadarrak kontratatuz gero, zerga gutxiago ordaintzen ditu proiektu osoak. Zenbat eta kanadar gehiago erabili zinema produkzioan, orduan eta zerga gutxiago ordaintzen

**BIGARREN ALDIA DUT
KANADAN; NATORREN
BAKOITZEAN
TXUNDITUTA UZTEN
NAU HERRIALDE HONEK**



Torontoren bereizgarrietako bat dira etxe orratzak.

dira. Horrela, goxoki baten antzekoa da Toronto, hiri handien antza izan eta zerga baxuak dituen filmaketak egiteko.

Garagardoa

Azkenik, aipatutako garagardoa. Bai, garagardoa. Lehenengo aldiz hemen izan nintzenean, Kanadako ardo izoztuaz –*ice wine*– hitz egin zidaten. Torontora iritsi eta orain garagardoaz mintzo dira. Eta hala da, ez dago bata edo bestea aukeratu beharrik. Ontario hegoaldean ardo izoztua ekoizten den neurrian, artisau-garagardo ere ezaguna da bertan. Ontario ingurura iritsi ziren lehen europarrak ohituak zeuden uraren ordeztu garagardoa edaten, urak izan zitzakeen zikinkeriak zirela eta. XVIII-XIX. mendeetan britainiar



soldaduak iritsi ziren hona eta garagardotegi propioak ezarri zituen gobernuak, soldaduak hornitzeko. Garai hartan, 300 garagardotegi baino gehiago izatera iritsi zen Ontario. Gaur egun, oraindik ere hainbat garagardotegi bizirik mantentzen dira Toronto eta inguruetan.

Ardo izoztua

Dena den, lehen esan bezala, ardo izoztuak ere bere fama dauka txoko honetan. Mundu mailan ekoizten den ardo izoztuaren %75 baino gehiago Kanadatik dator, eta bigarren ekoizlerik handiena Alemania da. Bereziki, Ontario hegoaldean lantzen da – Niagarako eskualdean, zehazki–, baina British Columbian, Quebecen eta Eskozia Berrian ere badago

produkzioa. Ardo hau mahats izoztuen bitartez egiten da. Paraje hauetako klima berezia dela eta, mahatsa tenperatura erosoetan hazten da. Baina udazkenean eguraldiak asko egiten du behera eta zero azpiko tenperaturak jasaten dituzte mahastiek. Bereziki, Kanadan, 8 gradu zero azpitik egon behar dute mahatsek jaso ahal izateko. Tenperatura honetan, mahatsaren ura izoztu egiten da, baina barneko azukreak eta beste hainbat solido disolbatu ez dira izozten

ZINEMA INDUSTRIA HANDIA DA TORONTON; HAINBAT HIRI SIMULATZEKO ERABILI IZAN DUTE FILMETAN

eta zuku kontzentratu bat ateratzen da mahats hauetatik. Horregatik, ardo gutxiago lortzen da mahats kantitate beretik, eta hau kontzentratuagoa eta bereziki gozoa da. Nire lankideak eta biok *tour* polit bat egin genuen konferentziaren amaieran eta Niagarako ur-jauzi ikusgarrien ondoren, ardo-upategi batera joan ginen ardo izoztua dastatzera. Ez gaude ohituak halako ardo gozo bat dastatzera. Mingainaren puntarekin beharrean, mingainaren atzealdera eraman behar da ardoa, gozotasunak zaporea estali ez dezan. Halaxe egin nuen, eta ikaragarri gustatu zitzaidan.

Etxera daramat orain botila bat. Hori bai, txikia, gure ardoak baino askoz garestiagoa baita! ■■■

Ibaietako arrantza denboraldian hilabete darama murgilduta Gipuzkoak. Arrantza jasangarria bultzatzeko helburuarekin, Debagoiengan, gaur egun, erreka tarteen gehiengo handia hilketarik gabeko arrantzarako dago bideratuta. Ibaietako arrantza zaletasuna duten debagoiendarrekin izan da PUNTUA.

Testua:

Josu Bilbao.

Argazkiak:

Elkarrizketatuek bidalitakoak.



Errekako arrantza, pasio bihurtuta



Denis Soriano aramaiorra, amuarrain bat erakusten.

Arrantzale taldea (Aitor Iziar, eskumatik hirugarrena), Oñatin.

Espainiako euli-arrantzako txapelketan parte hartu zuen Euskadiko selekzioa (Soriano, zutik, ezkerretik bigarrena.)

Udaberriarekin batera, urtero etortzen da arrantza denboraldia Debagoieneko ibaietara. Aurten, uztailaren 31ra arte –Debako hil gabeko arrantza tarte batzuetan, arrantzaldiak irailaren 30era arte iraungo du–, bertako erreka eta urtegiatan arrantzaz gozatzeko aukera izango dute zaleek.

Gure ibaietan harrapa daitezkeen espezieak izokin atlantikoa, amuarrain arrunta, amuarrain ortzadarra, barboa, loina txikia, lupia arrunta, hondoetako korrokoia eta platuxa dira. Hala ere, Deba ibaia, ia bere osotasunean, hilik gabeko gune moduan dago izendatuta, eta, beraz, arrainak erreka bueltatu behar dira harrapatu ostean.

Arrantza-gune ugari

Deba ibaian, Mutrikuko Sasiolako zubitik Eskoriatzako Edesa Industrialeko zubiraino doa arrantza tarte. Aramaio errekan, berriz, Deba ibaian isurtzen duen gunetik Arabako mugaraino. Arantzazu errekan, bestalde, bi arrantza-gune daude: lehena Oñati errekaekin bat egiten duen tokitik Lamiategiko ur-jauziraino doa; bigarrena, Olateko zentraletik Urruzola errotako zubiraino. Oñati errekan, Deba ibaian isurtzen duenetik Olabarrieta auzoko zubiraino doa arrantza-gunea. Horiez gain, Urkuluko urtegia eta Aixola urtegia ere badaude, baina azken honetan zebra muskuilua dela-eta arrantzatzea debekatuta dago, oraingoz. Bestalde, Arantzazu errekan ordainpeko barruti bat ere badago.

"Txapelketetako esperientzia kristorena da"

DENIS SORIANO

Arrantzan zaletasun moduan hasi arren, gaur egun, lehiaketetan ere buru-belarri dabil Denis Soriano aramaioarra. Izan ere, apirilean, izokinen Espainiako txapelketan parte hartu zuen, Asturiasen, Euskadiko selekzioarekin batera. Sorianok 22. postua lortu zuen, lan txukuna eginda: "Jaurtitze arineko txapelketa izan da, eta selekzio mailan, oso ondo hasi ginen arren, lehenengo postuan, bigarren egunean beherakada izan genuen, eta azkeneko txandan laugarren bukatu genuen talde moduan. Ni 11. postuan joan nintzen hirugarren txandara arte, baina azkenekoan bi arrain bakarrik harrapatu nituen eta 22. postuan bukatu nuen. Gaztela eta Leongo selekzioak irabazi du; han oso maila handia dute eta tradizioa ere handia da. Edozelan ere, esperientzia kristorena izan da".

Txapelketan euli-arrantza eta koilaratxoarena uztartu behar izan zituen Sorianok:

"Amuarrainak harrapatu nituen, eta baita itsas-amuarrain bat ere. Azken hauek, izokinen moduan, itsasotik errekarra jotzen dute errutera. Horrelako bat atera nuen, eta igartzen da amuarrainek baino indar handiagoa dutela, eta handiagoak ere izaten dira".

Hurrengo urterako Espainiako txapelketarako sailkatzea lortu du Denis Sorianok eta aurreko lortutako esperientziak balioko diola nabarmendu du: "Igartzen da esperientzia, noski. Ibaiari puntua azken egunean hartzen diozu, normalean, zein zati diren onak eta zeintzuk txarrak. Euliak ere aldatu egiten dira...".



Jaurtitze arina

Aramaioarra jaurtitze arin motan ibiltzen da: "Izan daiteke koilaratxoarekin edo builarekin eta euliarekin. Ni euliarekin ibiltzen naiz beti, ez bada erreka oso hazita datorrela. Koilaratxoarekin zuk pizten diozu arrainari jateko nahia, modu agresiboagoa da. Euliarekin bere janaren imitazio bat jaurtitzen diozu", azaldu du Denis Sorianok.

"8 bat urterekin hasi nintzen arrantzan, Urkulu inguruetan. Oñati ere ibili nintzen eta Aramaion apur bat. Hala ere, trenarekin-eta hasi zirenetik asko hondatu da erreka Aramaion", azaldu du.

"BALIO HANDIAGOA DU AMUARRAINA ERREKAN EGOTEA PLATEREAN BAINO, NIRETZAT"

Gaur egun, hil gabeko arrantza egiten duen arren, hasieran arrainak etxera eramatea "ilusioa" ematen ziola aipatu du aramaioarra: "Denborarekin konturatu nintzen benetan nahi nuena zela arraina errekan egotea. Niretzat, balio handiagoa du amuarraina errekan egoteak platerean baino".

Bestalde, arrantzarako baldintza egokiak egotea oso garrantzitsua dela azpimarratu du Sorianok: "Denboraldi hasieran egun lainotsuak komeni dira, hotz handirik gabe, eta eguerdi partea da onena. Denboraldi bukaeran, berriz, gau partea edo goizean goiz. Uraren tenperaturak du eragina, udan sereno deritzona gertatzen delako; iluntze aldera euli pila bat ateratzen dira, eta amuarrainen aktibitatea hazi egiten da, jaten hasten dira eta...".

"Euli-arrantzan badago misterio puntu bat"

JULEN ZABALETA

Julen Zabaleta oñatiarra duela 7 urte berriro bueltatu zen arrantzara, urteetan zaletasuna lagata eduki ostean. "Gaztetan asko ibiltzen nintzen, eta gero, laga egin nuen. Orain, euli-arrantza egiten dut, *latigo* arrantzaldia ere esaten dena. Erreferentzia modura, osaba beti egon da mundu horretan sartuta, eta nahiko euli muntatzaile ezaguna eta ona da. Horrela, 2012an osabarengana joan nintzen, arrantza teknika hori sekula egin barik nengoelako. Oñatin ere arrantzarako teknika bera erabiltzen zutenak bazeudela konturatu nintzen, eta haiek animatuta hasi nintzen. Gure bailaran batzuk bagabiltza gaur egun, baina euli-arrantzan ez dabil jende askorik", dio.

"Denboraldiaren arabera, toki bat edo beste aukeratzen duzu. Denboraldia irekitzen dutenean, apiriletik uztaiera arte Oñati inguruan ibiltzen naiz. Deba ibaian ere, Elorregi inguruan ibili izan naiz, baina, gehienbat, Oñati errekan. Denboralditik kanpo, arrantza intentsiboko guneak ere egoten dira. Amuarrainak espresuki askatzen dituzte, Leitzaranean eta Araxesen, eta hor irailetik martxora arte arrantzan egiteko aukera egoten da", dio oñatiarrak.

Zabaletak, hala ere, gurago du denboraldi barnean egiten den arrantza mota: "Niretako, denboraldikoa, erreka bertako

**"DUELA 7 URTE BERRIRO
BUELTATU NINTZEN
ARRANTZARA, URTEAK
LAGATA IZAN OSTEAN"**

arrainekin egiten dena da politena. Euren instintu naturala mantentzen dute arrainek eta euren medio naturalean dauden euliak jaten ohituta daude. Besteek ez dute instintu natural hori hain azalean".

Euli-arrantza

"Amuarrainek euren medio naturalean eduki ahal duten

janaria imitatzen saiatzen gara. Hor ez dago zientzia zehatzik, batzuek intsektu batzuk dituztelako gustuko eta beste batzuek beste batzuk. Presentatzeko modua ere garrantzitsua da. Eitxoa ahalik eta era naturalean jaurtik behar duzu, amuarrainak janaria dela pentsa dezan. Misterio puntu bat, beraz, badago".



"Ibaien egoera ona gakoa da arrantzarako"

AITOR IZIAR

Arrantzan umea zelarik hasi zen Aitor Iziar oñatiarra: "Memoria dudanetik daramat arrantza egiten, egia esateko. Udana aldean baserria dugu eta baserritik behera jaisten ginen errekarra. Lehenengo, arraintxo txikiak ogiarekin harrapatzen genituen, eta gero, amuarrainetan hasi ginen".

Lehen, beste arrantza mota batzuk egiten zituen oñatiarrak: "Gaur egun, legedia asko aldatu da, baina hasi, gehienak moduan, kortxoarekin eta zizareekin hasi nintzen. Gero, koilaratxoarekin arrantza egiten hasi nintzen – amua bota eta ekarri, bota eta ekarri– eta gaur egun, euli-arrantza egiten dut. Azken hamabi urteak modalitate honetan egin ditut eta Euskal Herriaz gain Espainia osoan ere ibili naiz. Katalunian, Gaztela eta Leonen, Kantabrian... Aurten, gainera, lehenengo aldiz Esloveniara joango naiz udan. Arrantzarako gertatuta dagoen toki batera. Bosnia, Eslovenia, Ameriketako Estatu Batuak, Kanada, Zeelanda Berria... Erreferenteak dira arrantza munduan".

Ibaien egoera, gakoa

Deba ibaiaren berreskuratzea bertan arrantzan egiteko gakoa izan dela azpimarratu du Aitor Iziarrek: "Askok hobetu da azken urteetan. Duela hamabost bat urte, bazeuden ibai batzuk ez

"APURKA, BEHERANTZ EGITEN ARI DEN ZALETASUNA DA ARRANTZARENA"

genuela pentsatu ere egingo gaur egun arrantzan egin ahal izango zenik, eta Deba horietako bat da".

"Gipuzkoako Federazioan sartuta egon naiz, eta apurka beherantz doan zaletasuna da. Gaur egungo gizarteak, eta gazteek batez ere, ez dute guk naturarekiko genuen lotura. Oñatiko Pago Uso elkartekoa naiz eta klubaren mailan ere ikusi da

beherakada. Duela hogeita bat urte, txapelketetan gazte ugari biltzen ziren. Gaur egun, hori ezinezkoa litzateke. Hala ere, euli-arrantza gorantz doan modalitatea da. Lkasiz gero, material eta teknika aldetik prestaketa handia eskatzen du, eta, arrantza egiteko gehien exijitzen duena izan arren, gehien disfrutatzen dena da", dio oñatiarrak.



"Nire kabuz ikasi nuen arrantzan"

IVAN DIEZ

"Osabak kanabera bat oparitu zidan txikitan, eta horrela hasi nintzen. Gero, ni kabuz hasi nintzen, familian ez nuelako arrantzalerik. Hala ere, bizikleta hartu eta Aramaiora edo Urkulura joaten nintzen", azaldu du Ivan Diez aretxabaletarrak.

"Denok hasten gara zizarearekin, gero koilaratxoarekin, eta, normalean, euli-arrantzan bukatzen dugu. Euli-arrantza modan dagoela esan daiteke, bai, baina beste mota batzuk ere indarra hartzen ari dira. *Catfishing*-a eta karpak hartzea ere bai. Moda ere erreken egoerak baldintzatzen duela uste dut. Orain, ibaiak lehen baino garbiago daude, eta lehen, amuarrainak ezin ziren arrantzatu", gaineratu du Diezek.

Ibaietan ibiltzeaz gain, urtegietan ere arrantza egiteko ohitura du aretxabaletarrak: "Noizean behin ibiltzen naiz Urkulun, Landan edota Aixolan. Errekarekin alderatuta guztiz ezberdina da arrantza mota hau. Errekan amuarrainen bila mugitzen zoaz ibaian gora, eta urtegietan alderantzizkoa izaten da. Amuarrainek zu topatu behar zaituzte. Guztiz ezberdina da, eta espezie aldetik ere amuarrainak gutxi harrapatzen dira. *Black bass* edo perka amerikarra asko arrantzaten da orain, baita lutxoak ere. Landan eta inguruko urtegietan siluruak daudela diote, nahiz eta nik ez dudan bat ere harrapatu...".

Bestalde, gaur egungo gazteak arrantzan hastea edo zaletasuna hartzea ez dela batere erraza nabarmendu du Ivan Diezek: "Gaztetxoek zaletasuna lantzeko



erreka egokiak behar dituzte, eta hemen inguruan, nire ustez, ez dago horrelakorik. Errekara joan eta amuarrainik hartzen ez baduzu, zaila izaten da zaletasuna garatzea. Andoain inguruan, adibidez, Araxes eta Leitzarain ibaien inguruan, arrantza klubek indarra dute, horretarako erreka egokiak dituztelako. Gazte ugari ibiltzen diren arrantzan".

Eslovenian ere bai

Ibaietako arrantza pasio du Ivan Diezek, eta oporrak ere zaletasunaz gozatzeko erabiltzen ditu. "Ezkontza osteko bidaietan ere Esloveniara joan nintzen,

"EZKONTZA OSTEKO
BIDAIA ESLOVENIAN
ASTEBETE EMAN NUEN
ARRANTZA EGITEN"

arrantzara; kar, kar, kar...

Astebete arrantzan eta bi aste hondartzetan eman genituen. Baina bai, horrez gain, Nafarroara, Burgosera eta inguruetara asko mugitzen gara. Aurten, gainera, berriro bueltatuko naiz Esloveniara. Han arrantzan ibiltzea oso ezberdina da, paradisua. Arrantza landu beharreko turismo baliabide gisa hartzen dute, eta, horregatik, asko zaintzen dituzte ibaiak eta inguruak. Hango ibaietan eta ibai-ertzeetan ez duzu plastikorik edota paperik ikusiko, nahiz eta herri garrantzitsuak inguruan eduki. Natura asko zaintzen dute, turismorako baliabide moduan ikusten dutelako. Egia da arrantzarako baimenek gehiago balio dutela hemengoekin alderatuta -50 eta 100 euro artean-, baina prezioak benetan merezi du". ■■■



INAZIO ARREGI

Opor ondoreneko ajeak

Gauza gutxi gertatzen dira opor sasoiotan. Gure komunitate naturaletatik irten eta urtean zehar egiten ez duguna egiten ematen dugu denbora. Lantegi, herri, lagunarteak eta partaide gaituzten beste hainbat talde utzi eta gune ezezagunak, toki exotikoak, hondartza zabalak edo hiriak bilatzen ditugu eguneroko inertzietatik ihes egiteko. Guztia eten eta aisialdi edo plazererako parentesi bat zabaltzen da gure egunerokoan. Ohikoa ezohiko bihurtzen dugu. Ihes egiten dugu –deskonektatu ere esaten diote honi-. Ahal dutenek, noski. Igaro berri ditugunak, aldiz, egunerokotasunetik ihes egiterik ez dagoela gogora ekarri digun *gonbidatu* batekin partekatu behar izan ditugu etxean geratu garenok.

Gonbidatu edukazio gabe eta deserosoa bera. Behin eta berriz gogorarazi diguna bizi garen etxea alokairuan utzita dugula eta jabeak nahieran hautsi dezakeela hitzarmena autogobernantza maila ezabatuz. Altsasu edo Errenteriara etorri dena gogoraztera ez dugula iragan hurbila gainditzeko eskubiderik eta lokatza horietan bizitzera kondenatuta gaudela berak kontrakoa erabaki arte. Behin eta berriz errepikatu diguna insolidarioak garela eta

OHERA JOAN NAIZ IGANDE GAUEAN LASAI, TOKIA ETA PULPITUA POLITOLOGO ETA TERTULIAKIDEEI UTZIZ

aurrerantzean gure ondasunen zati handiago bat kenduko digula, orain artekoarekin ez duelako aski. Emakumeei euren aldarrikapenetan urrutiegi Joan direla esan diena. Eta abar.

Gonbidatu-ak hainbat aurpegiera ditu eta, gutxienez, hiru moztorro. Gure etxeetan sartu nahian eman ditu oporrak eta aurrekoak.

Batzuetan, beldur izan gara lortuko ote zuen, baina, azkenean, elkarriz lagunduz eta indarrak bilduz etxeko atea sendotu eta kanpoan utzi dugu. Ohera joan naiz igande gauean lasai, tokia eta pulpitua politologo eta tertuliakideei utziz. Guztia amesgaizto bat izan bide da.

Gau erdian ahots bat entzun dut: "Argi!, hauek ez baitira desagertuko neanderthala desagertu zen bezala". ■

EZTABAIDA

Eutanasia, beste behin, erdigunean

Esklerosi anizkoitza zuen Maria Jose Carrasco emazteari hiltzen lagundu zion Angel Hernandez gizonaren kasuak berriro ekarri du eutanasiaren gaia gaurkotasunera.



JOSE RIVIERE
ABAROAKO PRESIDENTEA

"Kasu konkretu horretan, irtenbidea dela iruditzen zait. Baina, orokortuta, zintzotasuna existituko balitz, agian, bai, baina, bestela, ez nuke guztiz legezkatuko. Uste dut kasu zehatz bakoitza aztertu egin beharko litzatekeela jakiteko ea beharrezkoa duen edo ez".



JUANITA ZABALO
HERRITARRA

"Nik eskatzen dudana da gure eskubidea den zerbitzu paliatibo on bat jasotzea, eta, hala, herritar guztiei duintasun osoz bizitzeko aukera ematea. Eta hori posible ez bada, azken nahiak idatzita eduki, eta betearazi egin beharko liratekeela uste dut".

XIXILI

HELENA AZKARRAGAUZAR



ERREMATEA



URTZI AMIANO

Mina

Sagardotegi bikaina. Batzuek lanera joateko ere erabiltzen dute: "Me voy a la...". Lurpean eta itsasoan ere egoten dira gerrateen ondorioak. Arkatza ordezkatzeko duenak ere hauxe darabil. Lagun batek txakurren gorotzei ere horrela deritze. Hitz polisemikoa benetan *mina*, baina esanahi ezagunena eta azaltzeko zailena dena azaldu nahi dizuet nik, nahiz eta, ziurrenik, zalantza gehiagorekin geratuko zareten.

Nire lehengusuaren esanetan: "Mina zer bait intentsitate handiz sentitzea da". Indurainek ez zuen *sufriendu* hitza erabiltzen; nekearen limiteak aurkitzean, *mina* hitzarekin definitzen zuen. Zenbait klinikatan minari zenbaki bat ere jarri behar zaio, honen intentsitatea neurtzeko. Adituen esanetan, min fisiko batek ezin du hiru hilabete baino gehiago iraun. Medikuek batzuek diote minarekin bizitzen ikasi beharra daukagula.

Lagun handi batek dio bizitzako irakasle onena mina dela.

Anestesiak abesti baten erabiltzen duen esaldiarekin geratzen naiz neu, horretxek laburtzen baitu minaren esanahia niretzat: *Plazeraren bidean, beti izango dugu mina lagun.* ■■■



JON DE LA MAZA
ABOKATUA

"Egungo zigor-kodeak delitu bezala hartzen du beste pertsona baten hilketan kooperatzea, nahiz eta gaixotasun itzulezin bat izan eta pertsona horrek hiltze duin bat nahi. Soluzioa? Despenalizazioa. Legea onartu beharko litzateke horrelako goerretarako".



ITZIAR ARKAUX
ERIZAINA

"Bizitza luzatzea helburu daukan gizarte batean bizi gara, baina gaixotasun batzuen eboluzioak bizi-kalitatea asko murriztea dakar, eta bizitzen jarraitzea oso zaila, gogorra eta ia zentzua galduta egiten duena. Eutanasiaren legea martxan jarri beharko litzateke".

Ahots guztiak



IÑAKI PEÑA BARNE MEDIKUA

Pasa den apirilaren 6an, Principal Antzokian aurkeztu zuten *Adiorik gabe* ekimenaren laugarren ekitaldia. Inesa Ariztimuñok koordinatuta. Hain zuzen ere, DSS 2016ko hiriburutza kulturalaren haritik beste hiru ekitaldien jarraipena emanda, hiru izan ziren gogoratutako pertsonak: Jose Maria Elizegi *Mayi*, 1976an Donostian ETak eraildako. Aiert Beobidek zuzendutako dantza saioa eskaini zioten. Gladys del Estal, bestela, Guardia Zibilak erail zuen 1979an Tuteran. Haren omenez, Koldo Almandozek zuzenduriko film laburra ikus-entzun genuen. Francisco Arratibel, azkenik, ETak hil zuen Tolosako Inauterietan 1997an. Juantxo Zeberioek zuzendu zuen haren omenezko pieza musikala. Mireia Galarza eta Isidoro Fernandez izan ziren haria

josten batetik bestera ibili ziren aktoreak, ahots bitartekariak. Ekitaldi ederra, seme-alabekin konpartitzeko une hunkigarria izan zen niretzat.

Honekin oso lotuta, bereziki merezi duen testua publikatu zuen Pili Zabalak pasa den astean ere egunkarietan: *Sendabideak gure zauri kolektiboentzat*. Amu moduan lagatzen dizuet esaldi hau: "Indarkeriak kalte gehien egindako bost udalerrietan (Erretereria-Oretera, Arrasate-Mondragon, Elgoibar, Andoain eta Lasarte-Oria) akordioetara iritsi badira, Eusko Legebiltzarrean zergatik ez?". Mikroan ahal da, baina makroan ezin. Izan ere, bere hitzetan, "berradiskidetzea ez da barkatzea eta ahaztea, baizik eta gogoratzea eta aldatzea". Halaber, "sendatzea ez da bakarrik pertsoneri laguntzea,

baizik eta komunitatearen osasunarekin nahitaez lotzea". Eta "memoria kolektiboa bakar-bakarrik osa daiteke, modu objektiboan, eragindako eta sufritutako indarkeria guztiak, norbanakoak eta politikoak, zibilak eta militarrek deskribatzen eta argitaratzen badira. Gure memoria kolektiboak eta banakakoak konpontzeko eta berridazteko, egia zientifiko eta independentea bultzatu behar dugu, inongo injerentzia politikorik gabe".

Makroan, bitartean, posiblea izan da poliziaren abusuen biktimak aitortzeko legea aurrera ateratzea, hala Nafarroan nola Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ere. Istilu artean atera ere, auzibideetara eramateko mehatxuekin lubaki batetik. Azken finean, besteen existentzia ukatuta, besteen



humanitateari eta zauriei bizkarra emanda. Diagnostikoa bera ere – poliziek eragindako torturak eta erailketak– ukatzen baduzu, hurrengo urratsa blokeatzen duzu; sendabidea, alegia. Zarataren erdian, zorionez, Maria Jauregiren eta Iñaki Garcia Arrizabalagaren ahotsak desmarkatu dira Twitterren. Eider Hurtadorena ere telebistan, *360 grados* ETB2ko saioan. Eta Edurne Portelarena *El País*-en (*La caricia y la bofetada*).

Twitterren ere, Aitor Merinok ahotsa altxatu du TVERi ausardia gehiago eskatuz. *El silencio de otros* dokumental saritua (Almudena Carracedo eta Robert Bahar) eskaini dute telebistan egun euritsu hauetan, baina *Asier eta biok* film ezinbestekoak blokeatuta jarraitzen du. Besteen existentzia ukatuta.

ATXAGAK BLOKEOA PAIRATU ZUEN 'SOINUJOLEAREN SEMEA' LIBURU BIKAINARENGATIK

Ukazio eta blokeo horiei buruz zerbait badaki Harkaitz Canok ere, *Fakirraren ahotsa* (Susa, 2018) eleberrian jasotakoa, Imanol Larzabalen bizitza errealaren minetatik abiatuta. Bernardo Atxagak ere blokeoa pairatu behar izan zuen bere garaian *Soinujolarearen semea* (Pamiela, 2003) liburu bikainarengatik, orain zinemara eramandakoa.

Adiorik ez, gero eta gutxiago geratzen da *Suminetik eta saminetik bakera* Zarautzen aurkezteko. Eta amaitzeko, Ignacio Ellacuriaren ahots isilarazia ekarri nahi dut: "Errealitatea ezagutzeko, errealitatea kargutzeaz eta errealitatea kargatzeaz gain, errealitatearen kargu ere egin behar da".

Errealitate guztiak, begirada guztiak. Ahots guztiak, fakirrarena barne. ■■■

"Testamentua egiteko, adinez oso nagusi izan arte itxaroten dugu"

MERCEDES HERNAIZ NOTARIOA

Madrilarra da izatez, baina 2003. urte bukaeran Oñatira etorri zen lanera, eta orduz geroztik hemen bizi da. Berriki, testamentuari eta herentziari buruzko hitzaldia egin du Oñatiko Pake Leku erretiratuen elkartean, 'Ondorengotzaren fenomenoa. Testamentutik herentziara. Aspektu juridiko eta fiskalak' izenekoa.

Testua eta argazkiak: **Eneko Azurmendi**.

Notarioen lana "herritarrengandik urrun" dagoela azpimarratu du Mercedes Hernaizek. Hala ere, gauza asko diruditenak baino sinpleagoak direla ohartarazi du. Mundu zabala da notarioena, baina, oraingoan, testamentuak eta herentzia izan ditu hizpide. "Pozik" azaldu da jendeak hitzaldian erakutsi duen interes mailarekin.

Notario bat ohituta al dago hitzaldiak egiten?

Nik, behintzat, ez dut sekula egin hitzaldi bat, lehen aldia izan da hau. Elkarteko ordezkariak etorri zitzaizkidan esanez testamentuari eta herentziari buruzko hitzaldi bat egin nahi ote nuen, eta ideia ona iruditu zitzaidan, interes orokorreko gaia delako. Jendeak interes handia erakutsi du, eta naturaltasun osoz galdetu didate guztiak. Ni beti izan naiz gauzak ondo azaltzearen aldekoa, eta bezeroekin ere hala jokatzeko dut. Dokumentu bat sinatzerakoan, praktikoagoa iruditzen zait idatzita dagoena irakurtzea baino, nik neuk ahoz azaltzea, modu sinplean, ondo ulertu dezaten. Izan ere, irakurtzerakoan, kontzeptu tekniko asko egon daitezke eta haria erraz galtzeko aukera dago. Hitzaldian ere horixe

egiten saiatu naiz, gauzak modu errazean azaltzen, eta esperientzia polita izan da.

Gizarteak, oro har, kontrolatzen ditu gai hauek?

Ezetz esango nuke. Notarioarengana ez zara egunero joaten, beharra duzunean bakarrik: etxebizitza bat erosi behar duzunean, dibortziatu egin behar duzunean, eta abar. Gainera, jendeak uste du zuzenbidearekin eta justiziarekin lotutako hainbat gai benetan direnak baino zailagoak direla. Hala ere, gure lanaren engranajea herritarrengandik urrun dagoela uste dut.

Zeintzuk dira herritarren zalantza nagusiak testamentuarekiko eta herentziarekiko?

Prozesu osoa aurkeztu dut hitzaldian, hau da: Testamentua egitea erabakitzea da lehen pausoa. Gero, behin egingo dugula erabakita, testamentua egiteko ze pauso eman behar diren azaldu dut, eta, azkenik, hiltzen garenean gure ondareak nola eta zeini banatzen zaizkien. Hala ere, herritarren kezka gehiago zentratzen dira herentzian, testamentuan bertan baino. Izan ere, azken hau bizirik zauden bitartean aldatu dezakezula dakizun momentutik, ez dizu hainbeste axola. Hil ostean nola banatuko diren zure ondasunak, hori da benetan inporta zaizuna. Nola egingo dut



Mercedes Hernaiz, Oñatiko notariotzan.

guztia ondo lotuta uzteko eta lotuta utzi dudan hori nire familiarentzat onena izan dadin? Hori izaten da guztion ardura handiena.

Zer da testamentu bat?

Norberaren azken nahia jasotzen duen dokumentua da, legearen barruan herritarrok egin dezakegun ekintzarik askeenetakoa, eta, honen bitartez, zehaztuta uzten dugu hil ostean gure ondasunak noren eskuetan geratuko diren. Dokumentu honetan jasotzen den informazioa ahalik eta garbiena eta zehatzena izatea komeni da, guztia ondo lotuta uzteko. Horregatik, komenigarria da notarioarengana jotzea, ondo aholkatu gaitzan, eta testamentuak ahalik eta modu zehatzenean jaso dezan gure azken nahia. Zenbat eta gehiago zehaztu, orduan eta hobeto guztiontzat. Xedapen orokorrak edota alternatiba desberdinak planteatzen baditugu, zalantzak eta zailtasunak sortu daitezke. Nire prestatzaile batek esaten zidan testamentuekin kontuz ibiltzeko, batzuetan erloju-bonba bat izan daitezkeelako.

Eta zer gertatzen da hildakoak testamentuan ez badu ondo zehazten bere azken nahi hori?

Orduan, zuzenbide zibila sartuko litzateke jokoan. Legeak arau batzuk ditu hildakoaren azken nahia interpretatzeko eta hain garbi ez dauden hutsune horiek betetzeko. Testamentua ez dagoenean hain garbi, asmo oneko nahia ez bada edota oinordeko guztiak ados ez badaude, auzitegietan bukatzen du kasuak. Beti egongo da konponbide bat, baina askoz ere errazagoa da guztia garbi badago hasieratik.

Noiz egin dezakegu eta noiz arte daukagu aukera testamentua aldatzeko?

Ez dakit zergatik, baina testamentua egiteko adinez oso nagusi izan arte itxaroten dugu eta, askotan, berandu izaten da. Kode Zibilak dio 14 urtetik beharokoez ezin dutela egin, nahiz eta salbuespen batzuk egon. Beraz, adin horretatik aurrera, bizitzako edozein momentutan egin dezakegu testamentua. Norberaren azken nahia jasotzen duen dokumentua izanik, gura dugunean aldatu dezakegu, eta zentzua dauka aldatzeak, gainera, gure bizitza eta testuingurua aldatzen joaten direlako. Adibide bat jartzearen, lehenengoz testamentua egiten duzunean, ezkondu gabe zaude eta ez daukazu umerik. Baina gero, ezkontzea erabakitzen duzu, eta baita umeak edukitzea ere. Hasierako bertsioa aldatzea komeniko litzaizuke, ez dituzulako ezkontidea eta umeak aintzat hartu. 50 aldiz aldatuta ere, beti azkena izango da kontuan hartuko dena. Aldatzen

duzunean, aurrekoa baliorik gabe geratzen da automatikoki, salbuespen batzuetan izan ezik.

Testamentua egin duenak egin duen momentuan buru ahalmenak guztiz ondo dituela ere frogatu beharko da.

Noski. Gu ez gara psikiatruk edo psikologoak, baina, Kode Zibila jarraituz, gaitasun judizio bat igorri behar dugu testamentu bakoitzarekin. Nik baloratu dezaket pertsona batek badakiela zer gura duen, ondo ulertzen dituela gauzak eta zentzu osoz erabakitzen ari dela. Baina kasu guztietan ez da hala izaten. Pertsona batek buru ahalmenak guztiz ondo eduki arren, beldurra izan dezake, mehatxupean dagoelako, adibidez. Horrez gain, akatsen bat ere egon daiteke idatzian. Hori jasotzen dugu notariook gaitasun judizio horretan. Azterketa psikiatrikorik ez dugu egiten, ez dugulako eskumenik horretarako, baina saiatzen gara ziurtatzen pertsona hori zentzuzko erabakiak hartzen ari dela.

Testamenturik ez egiteko aukerarik badugu, ezta?

Boluntarioa eta librea da testamentua. Beraz, aukera hori ere badago, bai. Pertsona bat testamenturik gabe hiltzen denean, ez du esan zer gura duen gertatzea bere ondasunekin. Ondasunak ezin dira jaberik gabe egon, eta kasu horretan legeak betetzen du hutsune hori. Legez, herentzian seme-alabak lehenesten dira, eta ondoren ezkontidea. Gero, arbasoak, anai-arrebak eta haien seme-alabak, eta abar. Legeak dioen moduan egiten da banaketa hori. Hildakoak ez badu ahaiderik, Diputazioaren esku geratuko dira ondasun horiek. Baina hori oso gutxitan gertatzen da, oso zaila da horrelako kasu bat gertatzea.

Horri dagokionez, legea aldatu zuten 2015ean.

Euskal Autonomia Erkidegoan ondorengotzaren materia hau guztia Kode Zibilaren menpe zegoen 2015a baino lehen. Ez zegoen erkidego osoa batzen zuen legerik, arau lokalak zeuden. 2015ean, zuzenbide zibil bat ezarri zen EAEn, eta honek arau zehatz batzuk ditu, euskal herritar guztiei aplikatzen zaizkienak. Hau da, jaiotzez hengoak direnak edota 10 urte baino gehiago hemen bizitzen daramatzatenak; azken multzo honetan egongo nintzateke ni. Aldaketa horren aurretik, seme-alabak lehenesten ziren, gero gurasoak, ostean arbasoak eta azkenik ezkontidea. Lehen, gurasoek derrigorrez jaso behar zuten herentziaren zati bat. 2015az geroztik, hildakoaren seme-alabak eta ezkontideak dira haren ondarearen zati bat derrigorrez jaso behar dutenak. Gainera, 2015eko legeak seme-alabetako bat edo batzuk baztertzeko aukera eman du.



Mercedes Hernaiz, Oñatiko Pake Leku elkartearen, hitzaldia egiten.

"GURE LANAREN ENGRANAJEA HERRITARRENGANDIK URRUN DAGOELA USTE DUT"

"TESTAMENTUA AHALIK ETA GARBIENA ETA ZEHATZENA IZATEA KOMENI IZATEN DA"

"TESTAMENTUA GURA DUGUNEAN ALDATU DEZAKEGU, ETA ZENTZUA DAUKA ALDATZEAK, GAINERA"

Zer egin behar da testamentuak balio dezan?

Etiket pentsatuta eta idatzita ekarri dezakezu zer gura duzun, baina gero, notariotzan berridatzi egiten dugu testamentua, eta sinatu. Testamentu olografoa ere badago. Hau etxean utzi dezakezu idatzita, zure sinadurarekin eta datarekin. Legeak aintzat hartzen du; hala ere, hainbat gauza egiaztatu egin behar dira: hildakoaren letra berea dela, sinadura berea dela eta buru ahalmenak ondo zituela. Horretan saiatzen gara gu. Era berean, hiru lekukok ere parte hartu behar dute hori egiaztatzeko. Ez da oso gomendagarria testamentu mota hau, baina egin daiteke.

Zer da herentzia? Ze lotura du testamentuarekin?

Kontzeptu erabat ezberdinak dira. Herentzia da ondarearen transformazioarekin lotutako kontzeptua. Hau da, pertsona bat bizirik dagoenean, ondasunak ditu. Baina pertsona hori hiltzen den momentuan, ondasun horiek herentzia bilakatzen dira. Oinordekoak onartu edo errefusatu egin dezake ondasun hori. Oinordeko horiek testamentuan jasota egon daitezke edo ez. Ez badaude, legea aplikatuko da, lehen aipatu moduan. Pertsona fisikoak zein juridikoak izan daitezke oinordeko. ■■■

Zorabiatu eta lurrera

OREKA ARAZOAK



ANE UGARTE OTORRINOLARINGOLOGOA
ARGAZKIA: GUSTAVO TORRES

Desorekaren sintoma nagusiak dira zorabio sentsazioa, bertigoa, baldarkeria edota gure inguru guztia biraka dabilela sentitzea.

Batzuetan, goragalearekin edo buruko astuntasunarekin batera agertzen dira. Orekaren galerak bizi-kalitatea kaltetzen du eta gaixoak ohitura sedentarioetarantz bultzatzen ditu. Murriztu egiten dituzte lan eta aisialdi aktibitateak, eta handitu egiten da erorikoak izateko arriskua.

Oreka pertsona bakoitzak duen egonkortasun egoera da, gorputzaren mugimenduarekin edo inguruko objektuen mugimenduarekin zerikusirik ez duena. Beharrezko gaitasuna da egunerokotasunean, eta, askotan, ez diogu duen garrantzia aitortzen.

Oreka mantentzea ez da lan erraza. Garunak hainbat tokitatik datorkion informazioa integratu behar du –ikusmena, entzumena, gorputzaren posizioa ingurunearekiko...–. Mezu horiek guztiak

prozesatzeko eta mugimendua sortzeko zein kontrolatzeko gai izan behar da.

Batzuetan, zentzumenen arteko komunikazioa ez da behar bezala egiten, eta orduan sortzen dira asaldurak.

Zahartzaroan gehiago

Arazo horiek jende gaztearen artean ere ikus daitezkeen arren, 65 urtetik gorako helduetan dira ohikoagoak. Ondorioak, gainera, larriagoak izaten dira. Hala, zahartze prozesuarekin bat datorren arazo bezala uler daiteke.

Kaltetzen ditu gorputzeko hainbat sistema, orekaren kontrola eta gorputza zuzen mantentzeko mekanismoak. Gorputzaren desoreka sortzen du, eta erortzeko arriskua areagotzen da.

Kalkulatuta dago 85 urtetik gorako helduen erdiak urtean gutxienez eroriko bat duela. Lesio fisiko larrienak aldakaren edo pelbisaren hausturak dira; izan ere, mugikortasun arazo handiak sortzen ditu. Ukalondoko eta eskumuturreko hausturek ez dute

mugikortasun arazorik eragiten, baina asko mugatzen dute gaixoen autonomia.

Ez ditugu albo batera utzi behar istripu hauek sortzen dituzten lesio psikologikoak, *erortze ondorengo sindromea* deritzona. Kontuan hartzekoak dira, berriz, erortzeko beldurrak sortzen duen mendekotasuna, familiaren gehiegizko babesak eragiten duen autonomia galera, eta eguneroko bizi ohituretan gertatzen diren aldaketak.

Ezkutuko gaixotasunen seinale

Eroriko hauek osasun arazo garrantzitsu bihurtu dira gaur egun. Askotan, zahartzaroarekin batera datorren ondorio normal moduan ikusten dugu, baina arreta handia jarri behar da horrelako ezbeharren aurrean; izan ere, ezkutuko gaixotasun baten seinale izan daitezke. Horien artean daude barne belarriko bertigo motaren bat –*bertigo posizional onbera* da ohikoena–, ikusmen arazoak, giltzaduretako artrosia, hanketako ultzerak edo maskurrak, presio arterialaren



LESIO FISIKO LARRIENAK ALDAKAREN EDO PELBISAREN HAUSTURAK DIRA

aldaketak edo askotariko gaixotasun neurologikoen ondorioz ager daitezkeen mugikortasun arazoak.

Arazo txiki askoren pilaketa

Kasu gehienetan, askotariko sorburuek eragiten dituzte desoreka edo ezegonkortasun arazoak. Hau da, arazo txiki askoren pilaketatik etor daitezke.

Aurretik aipaturiko gaixotasunak, gainera, ez dira desoreka arazoak sortzen dituzten bakarrak. Dena den, arreta handia jarri behar zaie; izan ere, horiek dira zuzendu daitezkeenak, eta gaixoen bizi kalitatea hobetzeko bidea emango dutenak.

Tratamendu egokiak

Bertigoaren tratamendua diagnostikoaren arabera

erabakiko da. Zenbait bertigo arazo botika bidez kontrola daitezke. Kasu gehienetan, ordea, errehabilitazio teknika berezien bitartez ere landu behar da.

- Entzumen zein ikusmen defizitak zuzentzeko audiofonoak edo betaurrekoak beharko dira, eta ondo egokituak, gainera.

- Medikazio gaindosia zaindu behar da, batez ere, nerbio-sisteman eragiteko diren sendagaien kasuan – antsiolitikoak, loaren induktoreak...– zein tentsioa kontrolatzeko direnen kasuan.

- Ezinbestekoa da, baita ere, zapata egokiak erabiltzea; takoirik gabekoak eta oin guztiari ondo eusten diotenak. Askotan, makulua aldean edukitzeak segurtasuna ematen dio pazienteari.

- Oso garrantzitsua da etxebizitza egokitzea, eroriko asko bertan gertatzen baitira. Ondo argiztatu behar dira eremu guztiak, eta ekidin behar dira labainkorak diren zoruak zein alfonbrak edo traban egon daitezkeen altzariak.

Gomendio horiek kontuan hartzearekin batera, ez dugu ahaztu behar beti dela onuragarria egokitutako ariketa fisikoa egitea. Oreak lantzeko fisioterapia saioak ere gomendagarriak dira. Pazienteek ez dute gazte zireneko oreka berreskuratuko, baina, oreka eta koordinazioa hobetzen badute, gutxitu egingo da hirugarren pertsona batekiko dependentzia maila, eta horrekin batera igo egingo da autoestimua. ■■■

"Potentziometroa erabilera masifikatzen ari da"

AITOR ALBERDI PRESTATZAILE FISIKOA

ENEKO AZURMENDI

ARGAZKIAK: E.A.

Aitor Alberdi (1982, Zumarraga) goi mailako kirolarien prestatzaile fisikoa eta Jarduera Fisiko eta Kirol Zientzietan lizentziaduna da. Horrez gain, txirrindularitza entrenatzaile nazionala ere bada.

Zer da potentziometroa?

Erreminta teknologiko bat da, une oro txirrindularia sortzen ari den potentzia neurtzen duena. Indarraren eta abiaduraren arteko erlazioa da potentzia, eta honekin ikusten dena da zenbat indar ze kadentzian aplikatzen ari den ziklista. Pedalkada bakoitza erregistratzen du. Prestatzaile fisikoontzat, informazio gehigarri bat da potentziarena. **Mota desberdinak daude, ezta?** Aitzindaria SRM marka da. Hau sortu zenean, bizikletako platoko armiarma horretan jarri zituzten sentsoreak, eta, erabilgarria zela ikusi zutenean, beste enpresa asko hasi ziren potentziometroak sortzen. Bizikletako beste hainbat tokitan jarri dituzte: pedaletan, gurpiletan, bieletan, eta abar.

Txirrindulariari nola egiten dio mesede honek?

Galdera honi erantzuteko, adibide simple bat jartzen dut. Inoiz potentziometro batekin ibili ez den bati lasterketa baten hasieran potentziometro bat jarriko baliote, inongo etekinik ez lioke aterako.

Potentziometroarekin lan egiten hasten zarenean, ikaskuntza prozesu bat behar duzu. Potentziometroa oso baliagarria izan daiteke bi gauzatarako: bizikletan zoazenean, une oro egiten ari zaren esfortzuaren maila jakiteko eta kontrolatzeko eta, behin bukatu duzunean, egindako lana aztertzeke.

Errendimendua hobetzen ere lagunduko du.

Bai. Azken finean, datuak badituzu, datu horiek garrantzitsuak badira eta horien gaineko ondorioak ateratzeko gai bazara, zure errendimendua hobetzeko balio dezake. Azken urteetan eztabaida sortu da lasterketa profesionaletan potentziometroa erabili edo ez. Argi dago erlojuaren aurkako proba batean, adibidez,

ziklistak bere esfortzua kontrolatu dezakeenean, potentziometroak abantaila handia ematen duela. Lasterketetan, aldagai asko ez daude norberaren menpe, eta hor ez dago hain argi potentziometro batek eragin dezakeen abantaila zenbaterainokoa den.

Gaur egun, modan dago erreminta hori erabiltzea?

Ziklista profesional guztiak erabiltzen dute eta zikloturista gehienek ere bai. Sortu zirenean, oso garestiak ziren, eta nolabaiteko muga zen hori. Errendimendua hobetzen lagundu zezakeela konturatu zirenean, mundu profesionalean izugarritzko zabalkundea eduki du, eta erabilera masifikatzen ari da azken urteetan. Enpresa ezberdinak sortzearekin batera, prezioak asko jaitsi dira, edozeinek erosteko moduan. **Erabiltzaileek ondo kontrolatzen dute potentziometroa?** Datu asko ematen ditu, eta datu horiek guztiak programa ezberdinetara transmititzen dira. Horiek ere aldagai pila bat ematen dizkizute. Beraz,

"ASKOK EZ DAKITE BENETAKO ETEKINA ATERATZEN ERREMINTA HONI, ETA HORRETAN LAGUNDU GURA DIEGU"



Aitor Alberdi, Aretxabaletako Ibarra kiroldogian.

garrantzitsua ez da zenbat datu sortzen dituzun, baizik eta datu horiek ematen dizuten informazioa. Jende askok ez daki benetako etekina ateratzen erreminta honi, parametro batzuk ez dituelako kontrolatzen. Modu horretan, erdi herren geratzen da potentziometroa. Hitzaldi hau horretan oinarritu da, neurri batean, erreminta honek ematen digun informazio guztia kudeatzeko gakoak ematean, eta jakitean ze aldagaik lagundu diezaiokeen ziklista herriko bati erreminta honi etekina ateratzen.

Laborategi ibiltaria diozu.

Lehen, proba fisikoetako informazio esanguratsua lortzeko, laborategietara joan behar izaten zenuen. Egun, hori alde batera utzi gabe, errepidean ere lortu dezakezu informazio hori. Adibide bat: mendate bat 12 minututan igo duzu gaur, eta atzo 11 minutu eta erdian. Gaur, ordea, haizea kontran eduki duzu, eta atzo baino energia gehiago sortu duzu, denbora gehiago egin arren. Potentziometroak neurtzen du hori. ■■■



Ikusmina piztu zuen Alberdiren hitzaldiak, eta herritar ugari batu ziren.

Hitzaldia Ibarra kiroldogian

Gai hori ardatz hartuta, hitzaldia egin du Alberdik Aretxabaletako Ibarra kiroldogian, eta goraino bete da gela. "Eskerrak eman nahi dizkiet hau antolatu duten guztiei. Athlon eta Aretxabaletako Udalez gain, Iñaki Olaetxea nabarmendu gurako nuke. Bere garaian nire ikasle izan zen eta hari horri jarraika sortu da hitzaldi hau emateko aukera. Beraz, eskerrak eman nahi dizkiet", azaldu du hizlariak.

Zenbat da ordubete?

ERLOJUAREN IRAKURKETA



LEIRE ARANA FISIKAN LIZENTZIADUNA
ETA 'MATEMATIKETAN.EUS'
WEBGUNEAREN SORTZAILEA
ARGAZKIA: ETAPAINFANTIL.COM

Artikuluaren tituluak atenzioa eman badizu, zuenean gai honi bueltaka ibiliko zaretelako izango da, agian. Erlojuaren eta orduaren irakurketaren eta denboraren irakurketaren ikasketa prozesuaren inguruko hausnarketak bilatuko dituzu bertan.

Izan ere, erlojuaren kontuak bereganatzeko urteak behar izaten dituzte haurrek. Helduon ikuspegitik ulertzeko zaila da, guk orokorrean oso asimilatuta daukagun gaia delako, baina oso-oso gai konplexua da ume batentzako. Hiru aspektu oso ezberdin garatuaz joango da umea bide luze horretan.

Alde batetik, erloju analogikoaren zein digitalaren irakurketa hutsa egiten ikasi beharko du. Hau da, agian, umeak lehenengo garatuko duen gaitasuna. Erloju digitalean analogikoan baino azkarrago lortuko du normalean irakurketa hutsa burutzea. Beste fronte baten, ordua adierazteko sistemaren

konplexutasuna bereganatzeko lana izango du.

Bigarren aspektu honen zailtasuna bi aldetatik datorkigu; erlojuaren mekanismo eder baina konplexutik erarortzen dena, alde batetik. Izan ere, erloju analogikoan hiru orratz daude, baina bakoitzak bueltak abiadura ezberdinetan ematen ditu, eta bakoitzak ematen duen informazioa oso ezberdina da. Azkarrenaren mugimenduak beste biengan dauka eragina, nahiz eta eragin hori begi bistaz ezin duen ia behatu umeak.

Baina, beste aldetik, gizartearen ohiturak daude. Orduak irakurtzeko oso modu ezberdinak baitaizkagu; nahasiak, gainera. Ordua esateko modu batzuk orratzei begiratuta berehala ondorioztatzeko modukoak dira, baina beste batzuek zatikiekin edo kenketekin zerikusia dute; are gehiago, erlojuaren irakurketa soilarekin zerikusia daukaten moduak dira gutxien erabiltzen direnak kalean. Pentsa, adibidez, zer pasatzen den "gaueko hamarrak

laurden gutxi" deitzen den orduarekin.

Erloju digitalarekin ari bagara, 21:45 jarriko du. Beraz, 12tik 21 erako kontaketa egin behar da 9ak direla ondorioztatzeko. Gero, 45a 3/4ekin erlazionatu behar da, eta 1 edo osoari falta zaiona kalkulatu –hau da, zatikien arteko kenketa bat egin behar da–.

Analogikotik abiatuta ez dauka ume gizajoak bide errazagoa; izan ere, analogikoan orratz txikia ia 10aren gainean dago, baina hori ahaztu eta 9arekin erlazionatu behar da ordua; eta orratz handia 45ean dagoenez, berriz ere 45etik 60rako igoera egin behar du –hori kenketa bat da–, eta dagokion zatikiekin erlazionatu. Umeari ari gatzatuzko eskatzen zatikiak erabiltzea eta osoa betetzeko laurdena falta dela konturatzeari. Hori, berriz ere, kenketa bat da. Erotzeko moduko!

Denbora erlatiboa da

Hirugarren aspektua falta da oraindik, hala ere: denboraren igaroaren zentzuarekin zerikusia duena, alegia. Erlojuaren irakurketak eta gure

ERLOJUAREN KONTUAK BEREGANATZEKO URTEAK BEHAR IZATEN DITUZTE HAURREK



ohitura sozialak bereganatuta izateak ez du esan nahi ordubete zenbat den ulertzen duenik, edo hamar minutu edo hiru ordu laurden zenbat diren dakienik. Edo 11:10 izan eta hamabietarako zenbat falta den dakienik. Edo 10:00etan autobus geltokian egon behar badu garaiz iristeko aurreikuspenak egiten dakienik. Are gehiago, denbora asko edo gutxi zer den ulertzeko bide luzea izango du oraindik.

Magnituda fisiko asko baitira erlatiboak, baina erlatiboetan erlatiboena baitugu denbora. Denok izan baititugu larritasunean urteak baino luzeagoak egin zaizkigun minutuak edo esku artetik ia konturatu gabe alde egin dizkiguten egunak.

Ikasketa prozesu konplexua

Orotara, seguruenen, LHko lehen urteetan jarriko diogun lanik konplexuenetakoa eskatzen ari gatzaizkio ordulariaren bueltan ari garenean, eta are gehiago ordua modu "sozial" baten irakurtzeko esaten diogunean.

Denboraren kontuak bereganatu ditzan zer behar du, beraz, umeak? Bada denbora! Eta pazientzia eta lasaitasuna harekin lanean ari denaren partetik.

Erremedio magikorik ere ez dago, noski. Behin baino gehiagotan egon izan naiz LHko irakasleekin gai honi bueltaka, eta ez dago jakiterik nola den gaia garatzeko modu egokiena. Argi dauzkadanak, ordea, honako hauek dira:

1- Benetako ordua eta denbora tarte esanguratsuekin jardutetik eta oso maiz erlojua irakurtzetik pasatu beharko da prozesua; ikastolan, etxean eta kalean.

2- Umeak bere erlojua izatea ere komeni da. Digitala ala analogikoa? Ba, igual, biak, tartekatzen joateko.

3- Trebe ari den umeari konplexutasun osoa aurrean jartzen joan gatzaizkioke, baina ezinean ari denari frustrazio sentsazioa saihesten saiatzea dagokigu eta, beraz, "hogeita bata eta berrogeita bost" esatea ontzat eman beharko diogu. Esango diogu kalean beste modu baten esaten dela, baina lasai egoteko, ikasiko duela. ■■■

Dukiena jatetxean bertako barazkiak



EDURNE ISAZELAIA

SUKALDEKO ARDURADUNA

ARGAZKIAK: AMAIA TXINTXURRETA

Aramaioko Azkoaga auzoko Azkoaga Txiki baserrian daukagu Dukiena jatetxea. Gizonaren familia bizi izan zen gaur egun jatetxea daukagun baserrian eta orain dela 25 urte berriitu genuen eraikina.

Gure berezitasunak dira jakien kalitate gorena eskaintzen dugula gure otorduetako jakiak prestatzeko orduan eta mimo handiarekin

egiten dugula lan. Gertuko tratua ere aurkituko duzu gurean.

Ingurune lasaiaz gozatzeko aukera dago jatetxera etorritz gero; Anbotoko bista ikusgarriak ditugu, esaterako.

Sasoiko produktuak

Dukiena jatetxean hainbat plater eskaintzen ditugu kartan. Betidanik izan ditugu, esaterako, plater hauek: piper beteak itsas zapo eta ganbekin; txipiroiak; bildots-hankatxoak saltan; bakailaoa

piperradarekin pil-pil erara edo frijtituta; legatza eta legatzkokotea; eta itsas zapoa ere bai.

Gainera, bertako eta sasoiko produktuak erabiltzen ditugu, eta, adibidez, aurrerantzean, askotariko barazkiz egindako menestra eskainiko dugu, ilarrak eta baba beltzak ortuan haziko zaizkigulako.

Postreei dagokienez, etxean egindakoak izaten ditugu; gazta-tarta, sagar-tarta, flanak, ardi-esne budina... Arrakasta handia izaten du baita ere postreen dastaketak. ■■■

Dukiena jatetxea

- **Helbidea:** Azkoaga auzoa, Aramaio.
- **Telefonoa:** 945 44 50 86.
- **E-posta:** dukiena@hotmail.es.



DUKIENA JATETXEARI ESKER
IRABAZI BI LAGUNENDAKO OTORDUA. HARTU PARTE!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Orri-mami beteak perretxiko eta esparrago saltsarekin

Osagaiak (4 lagunendako)

- Orri-mamiak edo penkak, 8
- Urdaiazpikoa, 4 xerra
- Gazta, 4 xerra
- Irina
- Arrautza

Saltsarako:

- Tipula, 1
- Porrua, 1
- Esparrago berdeak, 8
- Perretxikoak, 200 g
- Salda, litro erdi

Prestaketa

- 1. Saltsa egiteko, erregosi tipula eta porrua, zatituta. Gero, gehitu perretxikoak eta esparragoak xehatuta eta litro erdi salda. Hori guztia egositakoan, txinotik pasa eta kazolan gorde.
- 2. Egosi orri-mamiak edo orri-mamiak 20 minutuz. Hozten utzi, eta hotzak daudenean erdibitu. Orri-mami zati baten gainean jarri gazta xerra erdia eta urdaiazpiko xerra erdia, eta beste orri-mami bat jarri gainetik. Irinetatik eta arrautzetatik pasa eta frijitu.
- 3. Orri-mamiak gehitu saltsaren kazolara eta utzi su baxuan pixka batez.
- 4. Atera platerera orri-mamiak eta saltsa, eta apaintzeko gehitu modena-krema apur bat.

Zailtasuna: • • • • •

Aurreko zozketako irabazlea: Nerea Zugasti Iñarra (Arrasate)

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba[“]
Euskara irabazle, denok irabazle!

Amamek egiten zituztenak

ERREBEKAK

ARANTZAZU EZKIBEL GALDOS

ARGAZKIAK: @PANDORASYKES, @JEANNE

Udaberri-udako hotzari aurre egiteko jantzi egokia da errebea deritzon jertsea. Jertse motza da, aurrealdea irekita izaten duena eta botoiduna.

Betiko jantzia dela esan daiteke, amamek josten zutena, hain zuzen ere. Oinarrizko jantzia ere bada; baina, orain dela denboraldi pare bat, moda munduko marka ospetsuek tendentzian jarri zuten.

Retro itxura dutenak

Tendentzia horri muzin egin gabe, *influencer* ugari dira errebea jantzia aukeratu dutenak euren *outfit*-ak osatzeko.

Kolore askotarikoak ikusten dira, eta estiloa ere denetarikoa da, baina bada joera argi bat: retro itxura duten errebearen alde egitea. Puntu finezkoak ikusten dira, gerrian amaitzen direnak eta pastel kolorekoak.

"Azkeneko urteetan eraman diren prakak gerri baxukoak izan dira; baina orain, gerri altukoak eramaten dira, eta, horregatik, oso egoki geratzen dira gerrira moztutako jertseak, eta baita kamisetak ere", azaldu du Ouka moda dendako Maialen Bordak.

Bordak dio errebekak bakarrik ez, kamisetak eta jakak ere motzak datozela aurtengo udaberrian. "Gerria markatzea da gakoa", dio.

Tirantedun soinekoekin

"Udaberrian asko eskatzen den jantzia izaten da errebea, tirantedun soinekoekin ondo geratzen delako. Besoak babesten dizkizu, eta gustura eta eroso egoteko jantzia izaten da", gaineratu du Bordak.

Udaberrira begira errebea finak ikusiko dira, eta baita zulo-puntuak dituztenak ere. Puntu mota hori asko ikusiko da, joera dela esan daiteke, ukitu erromantikoa ematen duena. Horrez gain, errebekak izango dituen botoiek ere garrantzi handia izango dute: handiak eta koloredunak izan daitezke, ikusgarriak.

Koloreak: beixak

Aurrez esan bezala, askotariko koloreak ikusiko dira, eta *outfit* bakoitzak bere estiloa jarraituko du. Hala ere, koloreen gainean,

Bordak dio beix koloreko errebekak asko ikusiko direla: "Negutik datorren tendentzia da. Beste urte batzuetan ez da ondo saldu izan beix kolorea, baina aurten bai. Galtza zuriei beix koloredun jertsea gehitzea izango da tendentzia". Horrez gain, turkesa kolorearen alde egiten du Bordak, eta baita udaberrian beti ondo geratzen diren marra, tanto eta loreen alde ere. Koloreei dagokienez, gaineratu du koloreak ez direla urte sasoi bakarrerako ateratzen: "Orain aterako dituzten koloreek indarra hartuko dute eta ondorengo bildumetan ere ikusiko ditugu".

Rebea hitzak emakumezkoaren jantzia adierazten duen arren, jertse irekia gizonezkoendako ere bada. Bakeroekin eta kamisetekin jantzi daiteke. ■

Hitchcock-en filmetik datorkio izena

Jertse mota horri errebea deitzearen arrazoia Hitchcock-en *Rebeca* filmean dago –1940–. Filmaren protagonista den Joan de la Fontainek jertse mota hori jantzi zuen filmean zehar, eta jendeari asko gustatu zitzaion. Ingelesez *cardigan* esaten zaio jertse mota horri, Cardigango kondearen ohorez –luzeagoak izan ohi dira–.



Joan de la Fontaine.



**BEIX KOLOREKO
ERREBEKAK GALTZA
ZURIEKIN
KONBINATUTA IKUSIKO
DITUGU**

Beix kolorekoa, egurrezko botoi nabarmenekin.



Gerri altua duten prakekin.



Zulo-puntudun errebea, soinekoarekin.

Airea, segurtasun iturri

AIRBAGAK

XABI GOROSTIDI

IRUDIAK: ZF GROUP ETA VOLVO

Galaxiako toki urrunen batean ura aurkitzea bizitza dagoen seinale izaten da. Baina, ura bezala, airea ere bizi iturri da: oxigenorik gabe hil egingo ginatekeelako, eta baita aireak biziak salbatzen lagundu dezakeelako. Autogintzan, adibidez, horixe gertatzen da airbag teknologiarekin, segundoko 60 milarenetan airez betetzen den poltsa batek heriotzarekin tupust ez egitea ahalbidetu baitezake. Sodio azidoak nitrato potasikoarekin talka egitean, nitrogeno eztanda bat sortzen du, aire poltsak begi kliska baten iraupen berean betetzea eragiten duena.

Airbagaren historia

Gezurra dirudien arren, airbag teknologia 1950eko hamarkadan hasi zen garatzen, eta aeronautika alorrean du jatorria, ABS teknologia bezala. Hala ere, lehen haziak II. Mundu Gerrakoak dira. Pilotu batzuek airez betetzen ziren jantziak zituzten, hegazkina uretara jausiz gero ez

hondoratzeko, baina lurraren aurka inpakturen bat izan behar zutenean ere aktibatzen zituzten. Autogintzan geroxeago hasi ziren erabiltzen, eta airezko poltsa miragarri horiek eduki zituen lehen autoa 1973an ateratako Oldsmobile Toronado modelo izan zen. Ameriketako Estatu Batuek egin zuten apustu handiena teknologia hau automobilgintzan aplikatzeko; batez ere, Detroiteko hiru handien eskutik: GM, Chrysler eta Ford. 1981ean, Mercedes


etxeko Clase S autoak sistema asko sofistikatu zuen, eta, 1989ko apirilean, AEBetan beharrezko bihurtu zen legez teknologia hori erabiltzea.

Airbagen garapena

Suediako Volvo izan da azkenaldian teknologia horretan berrikuntza gehien garatu dituen etxeetako bat. 1994an, adibidez, alboko airbaga ezarri zuten 850 modeloan, bidaiariek alboko kristalaren aurka talka egitean kolpeak leuntzeko. 2012an,



Volvo auto ekoizle suediarrek oinezkoentzako airbagak erabiltzen ditu.



ZF Group talde alemaniarra alboko airbaga komertzializatzeko bidean da.

aldiz, oinezkoentzako airbaga aplikatzen hasi ziren, harrapaketa kasuetan oinezkoek edo txirrindulariek aurrealdeko beiraren aurka har dezaketen kolpea leuntzeko. Aitortu beharra dago Ford etxe amerikarra hasi zela produktu hori garatzen 90eko hamarkadan eta hori oinarri gisa erabili zuela etxe suediarrek.

1996an, belaunetako lehen airbagak agertu ziren Toyota Avensis eta Kia Sportage modeloetan, 2008an bizkarreko

airbagak Toyota iQ autoan eta 2009an uhaleko lehen airbaga aurkeztu zuen Ford etxeak.

Alor horretako hurrengo berritasuna Alemaniako ZF Group taldea garatzen ari den kanpoaldeko alboko airbaga izan daiteke. Ikertu dutenez, alboko kolpeen sakontasuna hiru zentimetro murrizteak hiltzea edo bizitzea baldintza dezake, edo zauri leunak edo larriak izatea. Airbag mota hori aurreko beste edozein baino handiagoa denez, gas sorgailu indartsuago bat behar du. ■

AIRBAGEN ALORREAN, KANPO ALDEKO ALBOKO BABESA IZAN DAITEKE HURRENGO BERRITASUNA

Xabi Yaniz

AMAIA TXINTXURRETA

ARGAZKIAK: XABI YANIZ ETA A. TX.

Oñatiko Xabi Yaniz musikaria 1987tik 1996ra bitartean martxan egon zen Hor Konpon taldeko abeslari eta gitarra jolea izan zen. 21 urte geroago, 2017an, agertokietara itzuli ziren, Oñatiko Kilometroak jaiaren bueltan, eta bost kontzertu eskaini zituzten. Oraindik, entsegu lokalean elkartu eta kantuak sortzen jarraitzen dute. Azkenaldian, *Mila modu* izeneko proiektu musikalean murgilduta dago. **Nola gogoratzen duzu Hor Konpon taldearen itzulera?**

Aurretik bizi izan genuena berriro bizitzeko aukera izan dugu; asko disfrutatu dugu. Orain, gainera, familiak hazita dauzkagula, denbora gehiago daukagu, eta, ideia ugari

dauzkadanez, pentsatu nuen pena izango zela horiek gordeta uztea.

Eta kantu ugari konposatu eta grabatu dituzu ordutik hona.

Bai; gaur egun, hasi ginenean baino askoz baliabide gehiago dauzkagu grabazioak egiteko, eta asko errazten digu lana. Beste baliabide batzuk dauzkagunez, etxean grabatzen dugu orain. Ideiak argi dauzkagunean elkartzen gara, eta oso eraginkorra izaten da.

Nolako hasierak izan zenituzten Hor Konpon taldearekin?

Ilusiozko garaiak ziren, ez genekien askorik jotzen eta edozein gauza izugarria iruditzen zitzaigun. Gogoratzen naiz 16 edo 17 urterekin denok batera jo genuenean izugarritzko orgia izan zela. 1988an, maketa bat grabatu genuen; 1991n, Elkar

diskoetxearekin atera genuen lehen biniloa eta kasetea, hirugarren Gaztea Maketa Lehiaketa irabazi genuen... Guretzako, berria izan zen guztia. Erreferentzia bezala geneuzkan La Polla, Ertzainak, aurretik Itoiz... eta batzuekin jotzeko aukera ere izan genuen; esaterako, Zaramarekin eta Baldin Badarekin.

Non igarri dituzu aldaketak musikaren munduan?

Egun, izugarritzko aniztasuna dago, talde on ugari daude, eta hori oso ona da; lehen, ez zeuden horrenbeste.

Bestetik, pena ematen dit hainbesteren artean batzuk daudela euren proiektuak ezin aurrera atera.

Zu orain *Mila modu* izeneko proiektuan zaude murgilduta.

Kezka musikalaria bide ematen dion proiektua da,



Xabi Yaniz, zuzeneko batean.



Hor Konpon taldearen hasieratan, Azkoitiko plazan eskainitako kontzertuan.



zabalik dagoena; akustikoan kantuak egiten ditugu, baita elektrikoan ere. Dagoeneko hogeitatu kantutut sortuta eta bat oso berezia da: *Boza free* izenekoa. Koldo Lizarralde izan dut lagun gitarran eta ekoizle moduan, Luis Txintxurreta biolina jotzen izan dugu eta Etoile Magi ahotsean. Etxean grabatu dugu kantua, bideoak ere argitaratu dugu, eta oso harrera ona izan du. Errefuxiatuei buruzko abestia da eta Oñatiko Larraña Etxeko hainbat errefuxiatuk ere parte hartu dute. *Boza free* etorkinek Europara iristerakoan oihukatzen dituzten hitzak dira; garaipen eta askatasun oihua. Ikusiko dugu zein bide hartzen duen proiektuak. ■



Lasarteko Zulo aretoan, 1993an.

"Idaztea ez da plazera soilik, barruko beharra ere bada"

IRATI ELORRIETA IDAZLEA

MAIDER ARREGI

ARGAZKIA: IMANOL BELOKI

Irati Elorrieta idazle algortarrak 20 urte daramatza Berlinen bizi izaten. Ikus-entzunezko arloan ere jardun du Elorrietak lanean, baina, Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondoan, *Neguko argiak* (2018) bigarren lanaren erraiak azaleratu ditu.

Nobelaren bi ardatz nagusiak memoria eta adiskidetasuna dira. Nolako pertsonaiak dira?

Bi pertsonaia garrantzitsuenak bi emakume lagun dira eta bien arteko adiskidetasun harremana da lanaren ardatza. Baina, beraien arteko harremanaz gain, beraien inguruan dauden beste hainbat pertsonaiaren harremanak ere nobelaren parte dira. Nola egiten duten topo, zer konpartitzen duten bidean, nola banatzen diren pertsonaia batzuk... Eta bestetik memoria dago. Pertsonaiek iraganarekin duten harremana kontatzen da nobelan. Baita ere memoriak orainaldian hartzen dien lekua. Beste garai batzuetako memoria eta kolektiboagoa den memoria ere lantzen da.

Joxe Gartzia liburuaz esana, mestizajea eta ugaritasuna nabari direla pertsonaiengan. Berlinen eta munduko beste edozein txokotan horixe dago presente?

Berlinen bizi diren pertsonaiak dira, baina mestizajea badago, bai. Emakumezko bi lagun hauek ere euskaldunak dira eta Berlinen bizi dira. Badago beste pertsonaia garrantzitsu bat, vietnamdarra dena; beste bat, aldiz, danimarkarra da; baina japoniarrak direnak ere badaude. Denak elkartzen dira Berlinen.

Eta pertsonaia guztiek dute euren sustraia, ezta?

Eta denek beren harremana sustraiekin. Bakoitzak modu ezberdinean daraman gaia da. Nola bizi diren leku batean beste bat barruan dakarten aldi berean, alegia. Hori gura izan dut kontatu, azaleratu.

Pertsonaiak sortzeko garaian beste "ni asko" sortu dituzu?

Sortzerakoan nik ezagutzen dudanetik sortzen dut; baina baita ere nik ezagutzen ez dudanetik. Eta hor eraiki behar duzu beste aldagai batzuekin ere jokatzeko. Existitzen ez diren pertsonaia horiei bizitza

ematen diezun pertsonaiak izan daitezkeen.

Galerari aurre eginez, aurrera egiten dute pertsonaiek. Hori da eman nahi izan duzun mezua?

Uste dut kontatzen dela galera batekin batek edo besteak garatzen dituen estrategia ezberdinak. Hildakoa ere badago nobelan eta pertsonaia protagonista nola bizi den galera horrekin kontatzen da. **Espazioarekin eta denborarekin ere jolas egin duzu, espazio ezberdinak garai berean kokatuz. Zu horrela bizi zara Euskal Herria eta Berlin artean. Horren isla da?**

Bai; ezagutzen dudan zerbait da, gainera. Ni Berlinen nagoenean fisikoki, burua Euskal Herrian nola dudan testuan islatu gura izan dut. Hau da, espazioak nola egon daitezkeen aldi berean gertatzen. Gauza bat da espazio fisikoa eta beste bat mentala eta biak elkarrekin gertatzen diren bezala kontatu nahi nituen.

Urte hauetan asko berridatzi duzula aitortu duzu. Bazeneukan hasierako planik?

Hasierako plan handirik gabe hasi nintzen idazten. Sortzen ari ziren pertsonaiei eta gaiei

"IRAKURZALETASUNA GOXOTASUNETIK ETA EMOZIOETATIK TRANSMITITU BEHAR ZAIE HAURREI"



Irati Elorrieta MUko ikus-entzunezko eta komunikazio fakultateko liburutegian.

tiraka hasi nintzen pixkanaka. Askok berridatzi dut, zeren topatu behar izan dut zer zen bilaketa horretatik eskuratu gura nuena, eta gauzak kokatu gura nituen. Eta bilaketa horretan, asko berridatzi eta bilatu dut, bai.

Zure mamuei edo beldurrei aurre egiteko behar bat izan da liburu hau idaztea?

Idaztea ez da plazerez egiten den zerbait soilik. Behar bat sentitzen da idazteko eta, batez ere, hasi duzun hori jarraitzeko beharra sentitzen duzu. Eta bai, topo egiten duzu desatseginak

diren gauzekin. Baina nik ez dut ikusi aukerarik esateko: "Ez, ez diot honi aurre egin nahi, utzi egingo dut". Ez dut aukera hori sentitu. Agertu dira gauza zailak bidean, eta aurre egin behar izan diet. Liburua ez bukatzearen eta bertan behera uzteko aukera hori ez dut sentitu nigan.

Irakurtzearen transmisioa Berlingen oso modu naturalean egiten dela diozu.

Nire inguruan, haurrei zein garrantzitsua den gauetan irakurtzea oso barneratua dago. Ez da irakurtzea soilik;

testuaren bitartez, haurrearekin denbora bat eta espazio bat konpartitzea da helburua. Irakurzaletasuna da zerbait txikitatik sortzen dena eta emozioekin lotzen dena. Nik etxean jaso dut gauean ipuinak kontatzearen transmisioa eta argi eta garbi esan dezaket gaur irakurlea naizela gurasoak irakurle izan direlako; etxetik jaso dudalako, alegia. Irakurzaletasuna goxotasunetik eta emozioetatik transmititu behar dela uste dut. Eta ez behartuta.

Gurasoak transmisioa dira, baina eskola edo bestelako espazioak ere transmisio-gune dira.

Halaxe da, bai; gurasoek beti ez dute transmisio lana egiten. Badakigu familia mota asko dagoela eta jatorrizko kultura ezberdinetako familiak daudela. Eta horregatik, haurrak ere oso inguru ezberdinetan hazten dira. Izan daitezkeen ezberdintasun horiek orekatzeko tokia eskolak izan behar direla ere uste dut. Eta eskolan emozioetatik egin behar dutela transmisio lan hori; bidea hori da, eta ez inposatuz. ■■■

Desberdina izatearen aberastasuna



Harry Potter

Egilea: J. K. Rowling
Argitaratzailea: Elkar eta Salamandra
Argitaratze urtea: 2000
Orrialdeak: 280
Generoa: Fantasia



DORLETA KORTAZAR IPUIN KONTALARIA

Hitzaldi batek du gaurko gomendioa aukeratu izanaren errua. Adimen Gaitasun Handiko Haurren inguruko hitzaldi batera joan nintzen eta hizlariak esan zuen: "Beti egongo da bederatzi eta hiru laurdeneko nasa bat zuen seme-alabentzat". Aipamen hori nahikoa izan zen nigan jakin-mina piztu, liburutegira joan eta Harry Potterren lehen liburua maileguan hartzeko... eta ezin izan dut utzi zazpigarrena amaitu arte. Ez dut gogoko *best seller*-ak irakurtzea –burugogorkeria izango da, akaso–, baina oraingoan salbuespena egin dut. Eta ez naiz damutu.

Berez, liburu guztiek ia eskema bera izan arren, irakurleak harrapatzeko hainbat giltza dituzte: ondo jositako tramak, pertsonaia

aberatsak, akzioa eta gazteen unibertsoa erdigunean jartzea. Finean, ongiaren eta gaizkiaren arteko borroka dago oinarrian; eta ba ote hau baino mito boteretsuagorik?

Harry osaba-izeben etxean bizi da, ez dute maite eta ez dute onartzen, berezia delako. Bat-batean, berezia izateagatik onartua ez ezik miretsia den leku batera doa ikastera, eta hortik aurrera bere bizitza aldatu egiten da. Lagunak izatea, helduen babesa sentitzea, norberarengan sinestea... ez

**HARRIGARRIA EGITEN
ZITZ AidAN IKUSTEA
HAURRAK LIBURU
HORREKIN ESKUAN;
ORAIN ULERTZEN DUT**

ote da guztiok sakon-sakonean desio duguna? Fidelitasuna, laguntasuna, justizia, jakin-mina, gaizkileak zigortzea, txikia irabazle suertatzea... ipuin tradizionalen elementu klabeak ezin hobeto erabiltzen ditu J. K. Rowling idazleak *Harry Potter*-en bilduma osatzen duten zazpi liburutzarretan.

Harrigarria egiten zitzaidan ikustea haur eta gaztetxoak liburu puska horiek eskuetan hartuta, utzi ezinik. Eta orain badakit zergatik den... niri ere gauza bera gertatu zait. Nire eguneroko zoro honetan atsedean hartzeko irakurraldiak izan dira, mundutik deskonektatu eta seguru sentitzeko momentuak; inozentzia eta onberatasuna irabazle den unibertsoan murgiltzea beti delako elikagai aberatsa. ■■■

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

lanerako gertu!

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

2019-2020

Ate Irekien Jardunaldia

Maiatzak 25 (larunbata) 11:00

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91

Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia



Errefrau biltzailea

ESTEBAN GARIBAI ZAMALLOA ARRASATEARRA

MIREIA BIKUÑA ETA AUÑAMENDI ENTZIKLOPEDIA

ARGAZKIAK: M.B. ETA WIKIPEDIA

Espainiako Liburutegi Nazionalean badago dokumentu bat, XVII. mendekoa eta G139 kodearekin, *Refranes en Bascuence compuestos por Esteban de Garibay y Çamalloa* izenarekin. Geroago, beste bilduma bat egin zuen. Lehenengoan 64 errefrau daude eta bigarrenean, 63. Baina 37 errepikatuta daude. Guztira, 93. "Besteak beste, hori zor diogu arrasatearrok eta euskaldunok Esteban Garibairi. Euskarazko errefrau sortaz gain, XV. mendean, ahoz aho pasa ziren kantuak idatzi zituen. Amamarengandik jasotako doinuak. Emakumeen kantuak, alegia", aipatu du Ana Ugalde historialariak.

Idazle trebea

Esteban Garibai Zamalloa (1553-1599) arrasatearra XVI. mendeko kultura gizon garrantzitsua izan zen. Historia ikasi zuen, eta historiari lotutakoak dira haren lan nagusiak eta mardulenak. Adibidez, 1571an, Anberes-en, Espainiako Erreinua osatzen zuten herrialdeen historia luzeena idatzi zuen, 40 liburukitan. "Antropologia, toponimia... eta halako zientziak gustuko zituen. Asko idatzi zuen", dio.

Oñatin, Gasteizen eta Santo Domingo de la Calzadan ikasi zuen. Armadako kide izan zen, eta baita Arrasateko alkate ere, 1568-1569 urteen artean.

Familia umileko kide izanik, diru estutasunak ere pasa zituen. Halako baten ostean, Felipe II.ak harrera egin zion Escorialen, eta bere liburuzain izendatu zuen. Ostean, Madrileria joan zen historia eta genealogia lanak egitera; eta 1592an, erregearen kronikari izendatu zuten. "Erregearen kronikari izatea gaur egun funtzionario izatea bezala zen. Diru-sarrera bat zekarren postu hark. Hori horrela, lasaiago bizi izateko aukera izan zuen Garibaik", esan du Ugaldek.

Arkitektura errenazentista

Madril, Toledo... mundua ikusi eta etxera gero delako esaera asko erabiltzen zen garai hartan. Eta horixe bera egin zuen Esteban Garibaik. "Mundua" ikusi ostean, Arrasatera itzuli zen. "Oso arrasateartzat zuen bere burua, eta, Toledo aldean ezagutu zuen arkitektura errenazentista aintzat hartuta, bere

93 ERREFRAU JASO ZITUEN BI BILDUMATAN; EMAKUMEEN KANTUAK ERE JASO ZITUEN

jaiotetxearen fatxada aldatzea erabaki zuen", kontatu du.

Alde batetik, armarria ipini zuen fatxadan. Erregeak emandako armarria. Beste alde batetik, leiho luzea ipini zuen. Egungo balkoia. "Garibaik esan zuen berak ipini zuela lehen leiho luzea Arrasaten. Bere ostean, kopiatuta noski, Bolibarrek ipini zituen hainbat Gazteluondoko etxean".

Eta leihoetan kristalak ipini zituen. Hori ere luxuzko artikulua zen garai hartan. "Nantestik ekarri omen zituen etxerako kristalak. Bilboko portutik ekarri zituen", dio.

Biterik berreraiki zuen

Garibairen jatorrizko etxearen hondakinen gainean, oin berriko eraikina egin zuten, etxe zaharraren zirriborro bati erreparatuz. Zirriborroa Becerro de Bengoak egin zuen. 1873ko sute batek etxea suntsitu egin zuen, eta, urte batzuk geroago, Pedro Biterik eraikina erosi eta berreraiki egin zuen. Eraikin horretan, hainbat zerbitzu egon dira: epaitegia, biblioteka... eta egun, Gazte Informazio Bulegoa.

Etxea eta kalea

Arrasaten badira hainbat leku haren izena dutenak: Garibai etxea eta Garibai etorbidea, besteak beste. Bere omenezko monumentua ere bazegoen. Laster ipiniko dute berria, Iñigo Arregik egindakoa. ■■■



Esteban Garibairen erretratu bat.



Esteban Garibai jaio zen etxea.



Garibairen omenezko monumentuaren plaka.

Hitzen esanahiaz



MIKEL ARREGI

Hitza da kazetariok gure lanerako dugun lanabesa; nahita edo nahigabe, esan nahi dugun horri zentzua, norabidea emateko erabiltzen dugun tresna. Gure betebeharragusiaren artean izaten da erabiltzen ditugun hitzak aukeratzea, zirt edo zart egiteak hankaz gora jarri baitezake gure kronikan azaldu nahi genuen horren zentzua. Tentuz jardun behar dugu, eta ez bakarrik gure hitzen hautuaz, baita guk entzun eta gero kontatzen ditugun horien esanahiaz ere.

Azken aste hauetan, hamabi buruzagi independentistaren kontra Auzitegi Gorenean egiten ari den epaiketan ariketa hori egin beharra izan dugu han izan garen kazetariok. Hitz teknikoak ezkutatuak eufemismoek epaitzen ari diren gertakari gordinen errealitatea ezkutatu dute. Hori izan da azken asteotan deklaratu duten guardia zibilek ahoan izan duten hizkera, eta horren aurrean, kazetariok gure iragazkitik pasa behar izan ditugu deklarazioak. Ez nekien nik polizientzat "defentsa"-k direnak gainontzeko herritarrontzako borra direla, edo "masa" oinarritzko eskubideen baitan, manifestaziora irten diren herritarrek osatzen dutela. Ez da sorpresa izan, noski, poliziek



LA VANGUARDIA / PMK

2017ko urriaren leian izan zuten jarrera oldarkor hura eufemismo artean ezkutatzea. Ezta euren kontakizunetan, inork ikusi ez zituen erasoen berri ematea ere.

Beste kontu bat da kontakizun hauetatik publikatu dena. Izan ere, akusazioaren eta zenbait lekukoren testigantza hauek estatuko komunikabideetako titularretan ikusi ditugu. Esandakoa inongo iragazkitik pasa gabe, egun horietan denok ikusi genituen irudiekin zerikusi gutxi zuten hitzak egia bihurtuta ikusi ditugu

**ZIRT EDO ZART
EGITEAK HANKAZ
GORA JARRI DEZAKE
AZALDU GURA GENUEN
HORREN ZENTZUA**

telebistako informatiboetan eta egunkarietako azaletan.

Esan gabe doa profesional bakoitzak ikusiko duela nola egiten dion aurre albiste bati; eta horretan zerikusia duela komunikabidearen ugazabarekiko duen menpekotasunak eta errealitatea ikusteko kazetariak dituen betaurreko ideologikoak. Norberak, ahal duen neurrian, gizarteari zor dion zintzotasunarekin jokatu behar du; nahiz eta horrek ez duen esan nahi, batzuetan, fede txarrez dabilen kazetaririk ez dagoenik. Horregatik, kazetariak darabilen hizkera neurtu eta aztertu beharko luke irratia pizten duen edo telebista parean esertzen den herritarrak, bere lana fiskalizatu eta kontakizunaren atzean dagoen asmoa biluzteko. ■

Tiket digitalarekin unean bertan eduki dezakezu zure erosketen eta aurrezkien xehetasuna eta, gainera, atmosferara egiten diren CO₂ igorpenak murrizten laguntzen duzu.

Tiket digital berria, eroski.es helbidean eta EROSKI aplikazioan

Deskargatu doan hemen:



EROSKI

ARRASATE

Musakola z/g
ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30



Itzala

Begiraiozu txokolatezko tarta beldurgarri honi. Halloween egunerako aproposa, ezta? Zein da bere itzal zuzena?





Nora Ariznabarreta Gonzalez

Bergara. 3 kilo. Apirilaren 19a. Gurasoak: Nere eta Eneko. Argazkian, Nora, amarekin.



Aroa Iglesias Elorza

Aretxabaleta. 3,110 kilo. Apirilaren 14a. Gurasoak: Iriana eta Aitor. Argazkian, Aroa, aitaxorekin.



Paul Madariaga Garcia

Oñati. 3,560 kilo. Apirilaren 10a. Gurasoak: Joxe eta Marina. Argazkian, Paul, sehaskan lo.



Ane Aranzeta Corrales

Oñati. 3,450 kilo. Apirilaren 9a. Gurasoak: Iratxe eta Txomin. Argazkian, Ane, amarekin.



Jaio da!

Eman jaiotzen berri **PUNTUA**n eta Interneten.
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz **GOIENA**ren egoitzara.

Astelehenero 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik argitaratuko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



Gurasoen premiak asetzeko gunea

guraso.eus

- Gurasotasunaren gaineko iritzi artikuluak.
- Aisialdirako gomendioak.
- Adituei elkarrizketak.



Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • AFRASATE • 943 71 18 70



Volkswagen

T-ROC BERRIA

